



# HITZ XURIAK

Antton Kazabon

*Inma Mendiolaren marrazkiak*  
*Egilearen lientzoak*

Desclée De Brouwer

## Aurkibidea

Ez da hitz xuririk, Juan Kruz Igerabide . . .	9
Hondar xuria . . . . .	12
Eskailera xuria . . . . .	14
Ke xuria . . . . .	16
Bufanda xuria . . . . .	18
Eguzki xuria . . . . .	22
Urki xuria . . . . .	24
Sagar xuriak . . . . .	26
Harkaitz xuria . . . . .	28
Elorri xuria . . . . .	32
Arrosa xuria . . . . .	34
Ardi xuria . . . . .	36
Aterki xuria . . . . .	38
Ilargi xuria . . . . .	42
Xirula xuria . . . . .	44
Hodei xuria . . . . .	46
Uso xuria . . . . .	48
Ur-jauzi xuria . . . . .	52
Itxas txori xuria . . . . .	54
Elur xuria . . . . .	56
Zaldi xuria . . . . .	58

## **Ez da hitz xuririk**

Ez da hitz xuririk Kazabonen poemotan, haurtzaroaren araztasuna baizik. Errugabetasunaren bariazioak balira bezala, xuritasun/araztasun horien presentzia txirikordatzen da liburuan, hasieratik amaieraraino, izadia eta artea uztartuz, lientzo xuria eta izadiaren bariazio xuriak xuritasunaren sinfonia amaigabea antolatuz, lur elurtuetan bizi direnek hautematen dituzten xuri amaigabeak balira bezala. Bada hondar xuririk, bada olatuaren apar xuririk, bada ke xuri, bada eguzki xuri, bada urki xuri (urkiaren xuri zilarkara hori), bada sagar xuri... xuri dira harriak, elorri-loreak, ardiak, ilargiak, hodeiak, usoak, ur-jauziak, itsas txoriak, zaldiak... eta elurra, xuritan xuri. Eta maindi-reak, xirulak eta hainbat tresna.

Xuriak kolore guztiak biltzen ditu bere baitan, izadi guztia biltzen du, poema guztiak biltzen ditu. Azken batean, xuritasuna esna egoteko modu bat baino ez da: begien xuriak esna, egun xurian. Haurtzaroko araztasuna, gardentasuna... mundua pixkanaka aurkituz, ezaguera argituz. Horixe da poemotako xuritasunaren muinetako bat.

Maindiretik maindirera igarotzen da bizitza: sehaska xuritik, hil-ohe xuriz jantzi-  
ra, eta bien bitartean bizitzak bere bidea egiten du, ilunpean arrasto xuriak utziz, Erpurutxok etxera itzultzeko bidean harrikoekor xuriak uzten zituen bezalaxe.

Ez da hitz xuririk Kazabonen poemotan, zinezko araztasuna baizik.

Juan Kruz Igerabide

# HITZ XURIAK



## **Hondar xuria**

Hondar xurian  
marrazki politak egin ditu  
itsasoak  
olatuzko pintzela xurix  
apar xuriz  
marrazki politak  
hondartza xurian  
hondarrezko lientzo xurian  
itsasoak apar xuriz  
marrazki xuriak

Hondar xurian  
marrazki xuriak  
xuri-xuriak



Lientzo xurian  
hondartza margotu dut  
hondar xuriz jantzia  
haizearen musikaz leundua  
itsasoaren braustadez orraztua

Hondartza xuria  
zure altzo xuria  
xuria-xuria.

